



Bertaratutakoak:

Santiago Álvarez Folgueras Jn.

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria HERRIKOA

José María Carrillo Álvarez Jn.

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria HERRIKOA

Pedro María Baile Torrea Jn.

Representantes de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria CONCAPA

Sergio Gómez Salvador Jn.

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria CONCAPA

Ernesto Delas Villanueva Jn.

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria SORTZEN

José Miguel Gastón Aguas Jn.

Representante del profesorado de centros públicos/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria STEE-EILAS

Iñaki Berasategi Zurutuza Jn.

Representante del profesorado de centros públicos/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria LAB

Carmela Muñoz Ventura And.

Representante del profesorado de centros privados/Ikastetxe Pribatuetako Ikarasleen ordezkaria FETE-UGT

Camino Bueno Zamarbide And.

Representante de Directores y Directoras de centros docentes públicos/Ikastetxe publikoetako zuzendarien ordezkaria

Francisco José Flores Pérez Jn.

Representante de las asociaciones Empresariales/Enpresari elkarteen ordezkaria

Sonia Cabrero del Amo And.

Representante de las Asociaciones que

Iruñean, 2015eko abenduaren 17aren 17:15 direlarik, Eskola Kontseiluko egoitzan (Kale Nagusia, 56 – Ezpeleta Jauregia) Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiko Osoko Bilkura biltzen da, Aitor Etxarte Berezibar Jaunaren lehendakaritzapean, ondoan agertzen diren kideen presentziarekin, eta Fermin Casado Leoz Jn. Idazkari bezala, hurrengo gai-zerrendarekin:

1. Berrikustea, eta badagokio, aurreko saioaren aktaren onespena.
2. Lehendakariaren informazio orokorrak.
3. 2015eko 2. sehilekoko kontuen onspena.
4. Eztabaida, eta badagokio, 2014-2015 ikasturteko Nafarroako Eskola Kontseiluaren Memoriaren onspena.
5. Eztabaida, eta badagokio, 2014-2015 ikasturteko Nafarroako Eskola Kontseiluaren Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostenaren onspena.
6. "Nafarroako haurren aldeko aliantza" dokumentuaren aurkezpena.
7. Autonomien Eskola Kontseiluen XXIV. Topaketen informazioa.
8. Galde-eskeak.



trabajan por la igualdad/Berdintasunaren alde lan egiten duten elkarteen ordezkaria

Estebe Petrizan Iriarte Jn.

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Esther Monterrubio Ariznabarreta And.

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Pilar Elcarte Elcarte And.

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Alfredo Hoyuelos Planillo Jn.

Personalidad de reconocido prestigio/Aitortutako ospea duen pertsonalitatea

Cristina Bayona Saez And.

Representante de las Universidades/Unibertsitateen ordezkaria UPNA

Aurora Bernal Martínez de Soria And.

Representante de las Universidades /Unibertsitateen ordezkaria. Universidad de Navarra/Nafarroako Unibertsitatea

Francisco Javier Pérez Cueva Jn.

Representante de las entidades locales/Toki entitateen ordezkaria

Josu Repáraz Leiza Jn.

Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra-Federación de Ikastolas de Navarra/Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria-Nafarroako Ikastolen Elkarte

Fernando Barainca Lagos Jn.

Representante del profesorado de centros privados/Ikastetxe Pribatuetako Irakasleen ordezkaria FSIE-SEPNA

Jesús M^a Ezponda Iradier Jn.

Representante de Directores y Directoras de centros docentes privados concertados/Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria

Jorge Lanchas Rivero Jn.

Representante de las entidades titulares de centros privados de



Navarra/Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria/ANEG-FERE
Javier Albizu Sanz Jn.
Representante de las entidades locales/Toki entitateen ordezkaria
Lourdes Larunbe Arretxe And.
Representante del Personal de Administración y Servicios de los centros Docentes/Ikastetxeetako Administrazio eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria
Ignacio M^a Iraizoz Zubeldía Jn.
Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra/Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria/ANEG-FERE
Ignacio Toni Echeverría Jn.
Representante de las Personas con discapacidad de Navarra/Nafarroan desgaitasuna duten pertsonen ordezkaria/ CORMIN

Bere absentzia desenkusutzen dute:

M^a Soledad Garjón López And.
Representante del profesorado de centros públicos/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria AFAPNA

Ez ziren bertaratu:

M^a José Anaut Couso And.
Representante de las organizaciones sindicales/Sindikatuaren ordezkaria/UGT
Juan Ramón Elorz Domezáin Jn.
Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
Mikel Fernández de Quincoces Martínez de Birgala Jn.
Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
Miren Aranoa Astigarraga And.
Representante del Parlamento de Navarra/Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (EH BILDU)



M^a Luisa de Simón Caballero And.
Representante del Parlamento de
Navarra/Nafarroako Parlamentuaren
ordezkaria (I-E)

1. Berrikustea, eta badagokio, aurreko saioaren aktaren onespena.

Sonia Cabrero kontseilukidearen e-mail bat jaso duela dio Idazkariak. Bertan, 14/2005 Legeari, emakumeen bortizkeriaren aurka jardutekoari buruzkoa, erreferentzia egiten zion parte-hartzea ez dela aktan islatu adierazten du.

Hau ikusita, eta aktaren edukiari beste ekarpenik egiten ez denez, onetsia geratzen da, 6. puntuari hirugarren paragrafo gehituz. Honela dio:

“Beste alde batetik, Sonia Cabrerok NHLTn, Nafarroako Eskola Kontseiluaren urteroko txostenean emakumezkoen aurkako bortizkeriaren aurkako apirilaren 10aren 14/2015 Foru Legearen 14. artikulua jartzen duena kontutan izan behar dela gogorarazten du”.

2. Lehendakariaren Informazio Orokorrak.

Eskola Kontseiluaren XVII. Jardunaldien berri ematen du Lehendakariak, “Haur Hezkuntza”ri buruz, 8tik 11ra burutuko direnak, arratsalde. Jardunaldien edukia laburki azaltzen du, urtarrilean aurkeztuko direla, zikloa Marina Morik itxiko duela adieraziz. Jardunaldiak abiapuntua direla adierazten du, beste esperientzia edo ekarpenak (akademikoak nahiz praktika onekoak) dituzten ikastetxeek, 0-6ari buruz IDEA aldizkarian egingo den monografikoari gehitzeko.

Digitalizazioa eta Web-gunera igotzearen bitartez, Kontseiluaren komunikazioa hobetzeko eta Kontseiluaren artxibo historikoen dokumentazioaren eskuratzea errazteko aurrera eramaten ari den jarduerari buruz informatzen du Lehendakariak. Kontseiluaren jarduera komunikatiboa sendoarazteko, Nafar Gobernuako Argitalpenen Zerbitzuarekin kontaktatu da, eta honela, Kontseiluaren irudi korporatiboa bateratu da;



bai IDEA aldizkarian, baita argitalpen monografikoetan ere. Gainera, diseinu berri honekin “egokitasuna eta errepikapena nafar hezkuntza sisteman” monografikoa editatu egin da. Formatu berri honi egokitzen zaio orain Corellako Arte Eskolak egiten duen diseinua.

Ondoren, Lehendakariak bertaratukoei burututako bilera eta garatutako jarduera kontatzen du.

3. 2015eko 2. seihilekoaren kontuen onespena.

2. seihilekoaren kontuei buruz informatzen du Lehendakariak. EDUGES tresnarekin kudeatu zirela kontuak adierazten du, eta ekainean ez zen seihileko likidazio itxi, horregatik bi dokumentu daude.

Baiezpenez onesten dira.

4. Eztabaida, eta badagokio, 2014-2015 ikasturteko Nafarroako Eskola Kontseiluaren Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostenaren onespena.

Egunaren gai-ordena aldatuz, 2014-2015 ikasturteko NHSTari dagokion puntua lantzen da.

Lehendakariak, Nafarroak datuak oso eguneratuak dituela adierazten du, Estatuak edo beste Autonomi Erkidegoak egindako hezkuntza sistemaren azken txostenak, ordea, aurrekoak dira, kudeaketa zailtasuna suposatzen duenak.

Halaber, NHSTri 300 zuzenketa daudela informatzen du, haietako askok formazko izaera daukatela, akatsak bezala; beste batzuk estilistikoak edo hizkuntzazkoak dira, baina ez dute aferaren mamia aldatzen; beste batzuk generoaren erabilera okerrarengatik dira. Guzti hauek testura gehitu dira.

Beste zuzenketa guztiak sakonagoak dira: batzuk NHSTren egituran hutsak planteatzen dituzte. Afera honekin lotuta eta ea nola funtzionatzen duten eta zer den



emankorra jakiteko, Estatuaren Eskola Kontseiluarekin harremanetan jarri dela adierazten du Lehendakariak. Zuzenketa batzuk NHSTri falta zaizkion eduki edo zatiak adierazten dituzte, eta gehitu beharko lirateke, baina hurrengo urteko NHSTan egitea kontsideratzen da. Beste zuzenketa batzuk funtsean baloratiboak direla esaten du ere, baina NHSTaren egituran ez dago balorazio edo iradokizunentzako atala, eta ondorioz, honen gehitzea ez zela egokia adostu zen Batzar Iraunkorrea.

Kide batzuk zuzenketa guztiak ikustea eskatu dutela adierazten du Lehendakariak, eta arazo teknologikoak arren bidali egin zaie, eta beste batzuk, kideei Osoko bilkuraren deialdiarekin batera bidalitako zuzenketak baina gehiago eztabaidatzea eskatu dute.

Francisco José Floresek deialdia jasotakoan sentitu zuen harridura agertzen du, bere esperientziak esaten baitio zuzenketa guztiak ikustea dela hoberena, nahiz eta Batzar Iraunkorrek gehitzea erabakitzea formazkoak izateagatik edo garrantzi gutxi izateagatik. Izan ere, batzuk ezin direla formazkoak direla esan eta Osoko bilkuran eztabaidatuak izan behar direla, eta ondorioz ez direla onargarriak pentsatzen du.

Camino Buenok bi gauza aldarrikatzeko hitz egiten du: 1. Kontseiluak egiten dituen zuzenketak datuen iturrira bidaltzea, hurrengo urtean akatsak errepikatu ez dadila. 2. Iaz, NHSTa aurrerapenarekin egiteaz hitz egin zen, modu honetan akatsen lehenengo purga bat egiteko eta eztabaida materialezko izaera daukaten zuzenketetan zentratu dadin, eta ez formazkoetan. Edonola ere, akats guztiak kide guztiei bidaltzea interesgarritzat jotzen du, denok egindako akatsak ezagutzeko eta elementu didaktiko bezala balio dezan.

Jesús M^a Ezpondak Caminok esandako berrezten du eta Lehendakaritzaren aldaketarekin justifikatzen du. Interes (arintasuna eta gardentasuna) guztiak bateratzeko elkarlan tresnak (Kontseiluaren intraneta edo Google drive bezala) bilatu behar direla azpimarratzen du.



Sergio Gómezek azaltzen du zuzendutako testua, Iraunkorrak onetsitako zuzenketekin, ez ezagutzeak zailtasun bat suposatzen duela, zein testu bozkatzen duen jakiteko. Lehendakariak dio Iraunkorrak ez duela garrantzizko aldaketarik egin.

Iraunkorraren lana defendatzen du Santiago Álvarezek eta berak egindako lanaz fidatzea eskatzen du.

Ignacio Iraizozek dio, Araudiaren arabera, Osoko bilkura dela zuzenketak onesten dituenak, eta ez Iraunkorrak, eta ondorioz, ohikoena eta zuzenena zuzenketak kideei ematea izan zela deritzo, Iraunkorrak formazkoak direnak identifikatuz.

Fernando Baraincak Lehendakariak esandakoa berresten du, zuzenketa formazkoak besterik ez zirela azpimarratuz, baina praktika hau hobetzen saiatuko dira etorkizunean.

Taulak edo tabulaziak bezalako txostenaren beste zatiak deskonfiguritzen direla datu bat aldatzerakoan eta honek lana zailtzen duela adierazten du Lehendakariak. NHSTaren kudeaketa (iturriaren datuen lorpenetatik, zuzenketen trataera eta kudeaketara) hobetzen lortzeko prozedura bat nabarmentzeko batzorde bat sortzea proposatzen du, urtarriletik aurrera.

Ondoren, mantentzen diren zuzenketen analisia egiten da, proposatutako pertsonen defendatuta:

*46 zuzenketa. 64-65 orr., unitate eta ikasleko gastuen daturi dagokiona, sare publiko eta itundukoan.

José Miguel Gastónek urtero zuzenketa hau planteatzen dela adierazten du eta unitate eta ikasleko kosteen ezberdintasunen begi-bistazko arrazoiak azaltzen ditu. Kostuaren kalkuloa sobran dago, NHSTen dauden datuen operazio matematiko huts bat baita. Ez dela zuzenketa baloratiboa dio, deskriptiboa dela, eta honengatik, edo datua kentzen da edo kostuen ezberdintasun hori azaltzen da (ikastetxe pribatuak, adibidez, hiri zonaldeetan daude, MSD ikasleri gehiena sare publikoan dago, etab.)



Francisco José Floresek uste du, kostuen ezberdintasuna justifikatzen duen arrazoiak daudela, bai, baina ez dela NHSTtik datua ezabatzeko arrazoi nahikoa. Egin beharko litzatekeena, itundutako ikastetxe bateko ikasle batek zenbateko kostua izango luke sare publikoan aztertzen duen ikerketa bat egitea da, egoera berdinean (ratioekin, soldatekin eta sare publikoaren funtzionamenduekin).

Fernando Baraikak itundutako sarea, publikoaren egoera berdinean jarri beharko litzatekeela azpimarratzen du, zuzenketaren aurka joan dela, ondorioz.

José Miguel Gastónek ez duela informazioa lapurtu nahi dio, aurreko lerroetan egongo litzatekeela. Gainera, Flores Jaunaren proposamenarekin bat dator, eta baldintza sozioekonomiko eta lurraldezkoak kontutan izanik, besteak beste, sare publiko eta itundutakoan egiten den inbertsioa aztertzeko Kontseiluko batzorde bat osatzea proposatzen du.

NHSTen datua mantentzearen alde dago Pedro Baile, nahiz eta datu osagarriren bat gehitu ahal den. Aurrekoek proposatutako ikerketa egitearen alde aurkezten da.

NHSTa deskriptiboa izatearen alde egiten du Jesús M^a Ezpondak, kideak ez baitira balorazioetan ados jarriko, gaia oso subjektiboa delako.

Alfredo Hoyuelosek txostenean balorazio edo interpretazio batzuk faltan botatzen ditu. Adibidez, Haur Hezkuntzan ikasle gutxi batzuk TDAH diagnostikatua izateaz, 1000 ikasle Lehen Hezkuntzan izatera pasatzea azalpen bat mereziko luke, nahiz eta baloratiboa izan. Era berean, sare publikoan eta itunduan familiek ordaintzen duten diruaren datua oso garrantzitsua dela deritzo, eta faltan botatzen duenez, hitz egindako ikerketan islatu beharko litzateke.

Orain dela urte batzuk, balorazio batzuk gehitzen zirela adierazten du Ignacio M^a Iraizozek, baina oso berandu bukatzen zuten bilerak eta oso konfliktiboak ziren. Inmigrazioa oso banatua dagoela dio, ez sareka, baizik eta hizkuntza ereduka, eta



subjektibitate arazoak beti egongo direla, eta horregatik, NHST deskriptibo bat egitea, osagai baloratorik gabe, hoberena dela deritzo, hausturak saihesteko.

Ondoren, 46 zuzenketa bozkutzen da, ondoko emaitzekin:

Datu ezabatzearen aldeko botoak 10.

Datua ezabatzearen kontrako botoak 9.

Abstentzioak: 6.

Zuzenketa onartzen da eta, ondorioz, NHSTtik datua ezabatzea.

*47 zuzenketa. Aurreko zuzenketaren bozketaren emaitza ilusita, Josemik 47 zuzenketa erretiratu du.

*102 zuzenketa. 122 orria, 0-3 zentzoi buruzkoa.

0-3 ikastetxeen egoera azaltzen du Alfredo Hoyuelosek, eta nola batzuek, aldi baterako baimena bat daukaten eskatutako baldintzak murrizteko (ratioak, instalazioak, etab.). Betearaztea eskatu beharrean, egoera hau jasaten dela adierazten du.

Alfredok bere zuzenketan esandako balorazioan ezin duela onartu dio Francisco José Floresek.

Zuzenketak dioena egia dela dio Pilar Elcartek, araudia haur eskolak izan beharko luketeenaren kalte izan baita.

Ernesto Delásek dio luzamenduaren ondoren, baldintzen murrizketa onartu zela, desiragarria ez dena.

Administrazioaren utzikeriari buruzko erreferentzia kentzea proposatzen du Pilar Elcartek.

Balorazio subjektiboetan sartzen ari garela dio Jesús M^a Ezpondak, eta dinamika hau akats bat dela deritzo.



Haur eskolak ez diren haurtzaindegi elkarte bat dagoela dio Ignacio M^a Iraizozek, eta nahiz eta haiek nahi izan, izango luketeela betekizun horiek bete; eta honengatik, 3 urte baino txikiagoak dauden instalazioen kalitate eta seguritate baldintzei buruzko iritzi baloratibo ekiditea komenigarria dela.

Alfredo Hoyuelosek dio zuzenketaren idazketa nahitan gogorra dela, zentro hauen egoera zaila argi gera dadin. Administrazioaren utzikeriaren erreferentzia ezik, zuzenketa mantentzen duela.

Francisco José Floresek aurka jartzera behartua ikusten da, ziklo honetako haurren egoera txarra dela esatera ez baita ausartzen.

Ondoren, 102 zuzenketa bozkatzera pastasen da, hurrengo emaitzarekin:

Aldeko botoak: 13

Aurkako botoak: 8

Abstentzioak: 5

Proposatutako aldaketarekin zuzenketa onartzen da, bada.

* 103 zuzenketa. 123 orria.

Alfredo Hoyuelosek dio zuzenketa ez dela baloratiboa, deskriptiboa baizik, ratioak haur hezkuntzan handitu baitziren, eta hori zalantzan jarri ez daitekeen datu bat dela.

Ondoren, 103 zuzenketa bozkatzera pastasen da, denek alde bozkatuz.

* 114 zuzenketa. 125 orria.

Terminologia aldatzea komenigarritzat jotzen du Alfredo Hoyuelosek, zuzenketan adierazitako moduan.



Francisco José Floresek uste du zuzenketa hau CERMINEk beste zuzenketa batzuekin inkoherentea dela, eta denak Iraunkorrek onetsiak izan direla. CERMINEk esandakoa eta terminologia mantentzea dela hoberena uste du.

Ignacio M^a Iraizoz zuzenketaren bihotzarekin bat dator, baina araudiak egiten duen terminologiarekin talka egingo zuen. Beharbada, Departamentuari araudia egokitzea eskatzea proposatu beharko litzateke lehenik, adierazten du.

Existitzen den terminologiari egokitzen direla bere zuzenketak adierazten du Ignacio Tonik, egungo araudiak adierazten duena delako.

Iraunkorrean gomendiora pasatzea planteatu zela zehazten du José Miguel Gastónek, eta Alfredo Hoyuelosek adierazten du gomendio bezala gehitzen bada, zuzenketa kenduko duela.

Eztabaida ondoren, Hezkuntza Departamentura egungo izendapena aldatzeko eta “hezkuntza behar bereziak”en tokian “hezkuntza bereziko eskubideak” erabiltzeko gomendioa egitea adosten da.

* 181 zuzenketa. 146 orria.

Alfredo Hoyuelosek zuzenketa defendatzen du eta Lehendakariak erantzuten dio Iraunkorren “etorkinak eta autoktonoak” esatea adostu zela.

Ignacio M^a Iraizozek dio epigrafea ikasleria etorkinaren Harrera Programari dagokiola, eta Pilar Elcartek “aurkitzen da” “aurkitu daiteke” gatik aldatu daitekeela, eta “etorkin” terminoa ezabatu.

Proposamena bozkatzen da, bertaratuen boto guztiak alde dira, beraz, zuzenketa termino horieta onesten da.

* 182 zuzenketa. 146 orria.



Zuzenketa defendatzen du Alfredo Hoyuelosek eta bai etxean eta baita eskolan erreferente kultural ezberdinak egotea ez dela zailtasun bat, baizik eta aberastasun bat adierazten du.

Atal hau ez dela 0-3koa bereziki, baizik eta hezkuntza sistema osokoa zehazten du Camino Buenok, eta zalantzarik gabe zailtasun bat dela. Egoera erreal bat deskribatzen da eta datu deskriptibo bat da.

Iraunkorrean proposatutako zuzenketa transakzionala azaltzen du Lehendakariak, azkenean "eta izan daitezkeela, kudeatze moduaren arabera, aberastasun edo gatazka arrazoia" gehitzen duena.

Proposamena bozkatzen da, bertaratu guztien aldeko botoa lortzen du, beraz, zuzenketa termino horietan onesten da.

* 184 zuzenketa. 146 orria.

Alfredo Hoyuelosek zuzenketaren justifikazio azaltzen du, eta honi, Francisco José Floresek errepikatzen du Kontseiluak ez duela zerbait ongi edo gaizki egiten ari den balorazioa egin behar. Bere ustez, NHSTan hau ez da sartu behar, egokia ez den praktika bat detektatzen bada, bilera batean ikertu beharko litzateke eta balebakio, irizpen bat egin.

Ondoren, 184 zuzenketa bozkatzen da, ondoko emaitzarekin:

Aldeko botoak: 2

Aurkako botoak: 6

Abstentzioak: 13

Zuzenketa errefusatzen da.

* 187 zuzenketa. 147 orria.



Alfredo Hoyuelosek bere zuzenketa defendatzen du, ebaluazioarekiko izaera baloratiboa onartuz.

Francisco José Floresen ustez, beti gaitasun batzuk ebaluatzen dira bakarrik, beraz, “gaitasun eta ezagutzak” hurreko determinantea kenduz.

Camino Bueno Floresek esandakoarekin bat dator.

Alfredo Hoyuelosek “bakarrik” kentzea eta “batzuk” jartzea proposatzen du, transakzio moduan.

Ondoren, 187 zuzenketa bozkutzen da, ondoko emaitzarekin:

Aldeko botoak: 12
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 5

Proposatzaileak egindako zehaztasunarekin onartzen da, bada, zuzenketa.

* 191 zuzenketa. 147 orria.

Alfredo Hoyuelosek zuzenketa azaltzen du, harreman afektiboa eta emozionala garrantzitsua dela, ez bakarrik hizkuntzaren ikaskuntzarako, edozein ikaskuntzarako, Estebe Petrizani erantzunez. Flores bat dator.

Ondoren, 191 zuzenketa bozkutzen da, hurrengo emaitzekin:

Aldeko botoak: 6
Kontrako botoak: 3
Abstentzioak: 10

Zuzenketa onartzen da.



* 214 zuzenketa. 183 orria.

Alfredo Hoyuelosek bere zuzenketa justifikatzen du, eta Francisco José Floresek zuzenketa agertzen dena ez dela parte-hartzeko bide formala (ikastetxeko ohiko sarrera), eta ondorioz ez lukeela NHSTen agertu behar erantzuten dio.

Camino Buenok dio gauza bat dela ikastetxearen sarreran eta irteeran parte-hartzea egotea, baina Floresek esandakorekin bat dator (ez dela organo bat, egoera bat baizik), eta honen aurrean Alfredok bere zuzenketa kentzen du.

* 220 zuzenketa. 191 orria.

Alfredo Hoyuelosek bere zuzenketa azaltzen du, eta Francisco José Floresek horrelako gogoeta baloratiboak ez liratekeela agertu behar NHSTen esaten du, zalantzarik ez baitago konektibitate arazoak ez egotea dela desiragarriena.

Ea iradokizun moduan agertu daitekeen galdetzen du Alfredo Hoyueleseki, eta Lehendakariak aktan horrelaxe ager litekeela erantzuten dio, eta horregatik zuzenketa kentzen du.

* 229 zuzenketa. 202 orria.

Alfredo Hoyueloseko zuzenketa azaltzen du, eta ondoren Camino Buenok "eskolatzeko egokia" ez dela NHSTrako egokia adierazten du, eta instalazioen kalitatea beste ikerlan baten helburu izan beharko litzatekeela, NHSTak bakarrik zenbakizko datuak eta datu estatistikoak biltzen baititu.

Francisco José Flores bat dator aurrekoarekin eta "egokia" kontzeptu generikoa, subjektiboa eta baloratiboa dela dio.

Ondoren 229 zuzenketa bozkatzen da, hurrengo emaitzarekin:



Aldeko botoak: 3

Aurkako botoak: 10

Abstentzioak: 6

Zuzenketa, bada, errefusatzen da.

* 230 zuzenketa. 203 orria.

Alfredo Hoyuelosek zuzenketa azaltzen du, eta Francisco José Floresek planteatzen duena ilegala dela erantzuten dio, eta beraz, egia ez dela Administrazioak zerbait egin izan lukeelako. Zuzenketa hau, analizatutako beste batzuk bezala, Iraunkorrek onetsitako eta kideei bidalitako egoera-orrian onetsia bezala agertzen dela, harritzen duena, ez baitauka formazko izaera bat.

Lehendakariak egoera-orriak zenbait akats dituela erantzuten dio, zuzenketa hau ez baitzuen Iraunkorrek onetsi, Osoko bilkurak aztertzeke utzi zen, orde.

Proposatzailearekin bat datorrela dio Camino Buenok, baina NHSTa ez dela problematika hau sartzeko tokia adierazten du.

Ondoren 230 zuzenketa bozkatzen da, ondoko emaitzarekin:

Aldeko botoak: 7

Aurkako botoak: 8

Abstentzioak: 5

Zuzenketa, bada, errefusatzen da.

* 232 zuzenketa. 210 orria.

Alfredo Hoyuelosek zuzenketa azaltzen du, bere izaera baloratiboa onartuz, eta Francisco José Floresek erantzuten dio 0-3 zikloaren matrikula jaitziera beste arrazoi



batzuenatik azaldu daitekeela ere, azterketa zehatz bat egin beharko litzatekeela eta, beraz, ezin duela zuzenketa onetsi.

Sergio Gómez bat dator, ezin dela arrazoi bakar bat jarri, beste asko baitaute, langabezi tasa altua bezala, 0-3 ikastetxeei jotzea beharrezkoa ez egin ahal duela.

Pilar Elcartek dio, ikerketa zehatz bat egingo beharko litzatekeela.

Ondoren, 232 zuzenketa bozkatzen da, ondoko emaitzarekin:

Aldeko botoak: 2

Aurkako botoak: 8

Abstentzioak: 9

Zuzenketa, bada, errefusatzen da.

* 236 zuzenketa. 218 orria.

Alfredo Hoyuelosek zuzenketa azaltzen du eta datuengatik harridura erakusten du, Pilar Elcarte bezala, berriazko ikerketa bat egin beharko litzatekeela gehitzen duenak.

Francisco José Floresek dio gain-diagnostiko kliniko azalpen bat izan daitekeela, baina hipotesidun zuzenketa hauek ez dagoela NHSTan sartzerik azpimarratzen du, nahitan berriazko ikerketa batean baizik.

Hainbat kideek ados daude TDH bat Haur Hezkuntzan diagnostikatzea oso zaila dela, eta honi, Estebe Petrizanek gehitzen dio Kontseilariak TDHren ikerketan sakontzea gustatuko litzaikeela. Medikazioa salbuespenezkoa izatea eskatzen zuen zirkular bat Lehen Mailako Atentziotik bidali zela orain dela hiru urte, baina normala bihurtu dela dio. Gaiarekin gain-sentsibilizazio bat dagoela uste du. Sakondu behar dela uste du baina ez NHSTan sartu.



Ignacio Tonik dio minusbaliotasunen aferan gauza bera gertatzen dela, baina gai hau ez dela NHSTan isladatua agertu behar uste du, eta horregatik ez du zuzenketa aurkeztu.

Ondoren 236 zuzenketa bozkutzen da, ondoko emaitzarekin:

Aldeko botoak: 3

Aurkako botoak: 6

Abstentzioak: 11

Zuzenketa, bada, errefusatzeko da.

* 247 zuzenketa. 225 orria.

Zuzenean 247 zuzenketa bozkutzen da, ondoko emaitzarekin:

Aldeko botoak: 6

Aurkako botoak: 6

Abstentzioak: 6

Kalitatezko Lehendakariaren botoa aurkakoa da, beraz, ez da zuzenketa onesten.

Pilar Elcarte azaltzen du bere abstentzioa zuzenketak NHSTtik kanpo analiza daitezen dela, denok bat datoz.

* 250 zuzenketa. 237 orria.

Kideei bidalitako NHSTean akats bat dagoela informatzen du Lehendakariak, eta testu zuzena ondokoa izango zela: "Kalifikazio positiboen portzentai txikiena aurkezten duten aferak, ezberdinak dira Lehen Hezkuntzaren zikloaren arabera. Horrela, lehenengo zikloan gaztelania hizkuntza da, matematiketatik jarraituta, bigarren



zikloan atzerritar hizkuntza da, matematiketatik jarraituta eta hirugarren zikloan gaztelaniar hizkuntza, matematiketatik jarraitua”.

Zuzenketa, bada, kentzen da.

* 253 zuzenketa. 239 orria.

247 zuzenketa bozkatzera pastasen da zuzenean, ondoko emaitzarekin:

Aldeko botoak: 2

Aurkako botoak: 9

Abstentzioak: 7

Zuzenketa, bada, errefusatzeko da.

* 258 zuzenketa. 251 orria.

Alfredo Hoyueosek azaltzen du, gaitasun batzuk eta besteak ez ebaluatzea komenigarria izateaz gain, PISAk eta Instituto de Evaluación del MECek egiten dituztela ebaluazioak, daukaten eduki eta eremu mugatuarekin.

Ebaluazioak partzialak direnarekin bat dator Ernesto Delás, eta Camino Buenok erantzuten dio afera ez dela ados gauden edo ez zuzenketak esaten duenarekin, baizik eta, NHSTri balorazio hau gehitzea bidezkoa den edo ez, azken aztertutako zuzenketetan gertatzen dena.

Estebe Petrizán bat dator gaitasun batzuk ebaluatzea falta denarekin, baina dena neurtzea ezinezkoa dela dio.

Santiago Álvarezek bai uste du NHSTa balorazio hauek sartzeko tokia dela, ebaluazio diagnostikoak daukaten balore murrizta argi uzteko, Iñaki Berasategui eta Ernesto Delás ados daude honekin.



Camino Buenok esaten du zuzenketan adierazitako elementu batzuk ez direla gaitasunak ere, eta proposatzaileak adierazten du ez direla ebaluatzen, eta jakitun dela ez direla gaitasunak.

Sergio Gómezek dio zuzenketa honekin, zer ebaluatzen ez den esanez, Kontseiluak ebaluatzea nahi duela esaten duela irudituko litzatekeela, Hezkuntza etikoa eta morala bezala.

Estebe Petrizeri gustatuko litzaioke Kontseiluak zein gaitasun ebaluatzen diren eta zeintzuk gustatuko litzaiokeen esatea, zuzenketarekin lortzen ez dena. Inoiz ezingo da ebaluazio oso bat egin.

258 zuzenketa bozkatzera pastasen da, hurrengo emaitzarekin:

Aldeko botoak: 8

Aurkako botoak: 6

Abstentzioak: 4

Onesten da, bada, zuzenketa.

* 280 zuzenketa. 270 orria.

Alfredo Hoyuelosek zuzenketa azaltzen du, eta Francisco José Floresek ISEC finkatutako irizpideekin ebaluatzen dela ISECa dio, eta ezin direla beste elementuak gehitu, ez litzatekeelako ISECa izango, beste erakusle bat izango litzateke.

Aurora Bernalek esaten du ezin dugula NHSTean informazio hori sartu, ezinezkoa izango litzatekeelako.

280 zuzenketa bozkatzen da, hurrengo emaitzarekin:

Aldeko botoak: 4

Aurkako botoak: 10



Abstentzioak: 4

* 284 zuzenketa. 287 orria.

Aurrekoaren antzekoa izanda, zuzenean bozkatzen da, ondoko emaitzarekin:

Aldeko botoak: 4

Aurkako botoak: 10

Abstentzioak: 4

Zuzenketa, bada, errefusatzeko da.

Beste alde batetik, NHSTaren hizkuntza inklusiboa hobetzeko iradokizundun eranskin bat aurkeztu duela dio Camino Buenok, aurkeztu duen hirugarren urtea izanda, etorkizunean kontutan izango dela espero du.

Gutxienez NHSTaren 3 hobekuntza iradokitzen ditu:

a) 268 orrian, "mailakazko distribuzioaz" hitz egiten duen atal bat dago (10 lerroa). Lerro horiek desagertu beharko lirateke ez badute erreferentzia egiten duten analisia egiten. Lerro horiek ez dute ezer gehitzen. Hurrengo urterako iradokizun moduan esaten du.

b) 255 orrian, 246 taulan, Lehen Hezkuntzako ikasleriaren idatzizko gaitasuna ebaluatzeko irizpideez hitz egiten du. NHSTean gaude, azpimarratu nahi du.

c) 296 orrian, 22 eta 24 lerroen artean, Hezkuntza Administrazioari galdera bat egin nahi dio. Paragrafo bat soberan dagoela uste du, ez dagoelako arazorik emakumeek goi titulazte tasa gizonena baino altuagoa izateagatik. Hezkuntza sistemaren garapen estrategikoarentzat, goi titulatuen tasa ezagutzea interesgarria izan daiteke, baina ez emakumeek daukaten goi tituluaren erakuslea.

Lehendakariak Camino Buenok egindako ekarpenak kontutan hartuko dituela etorkizunean esaten du, eta testu inklusiboaren dokumentua kontutan izango dela.



Ondoren, NHSTa bere osotasunean bozkatzen da, eta Francisco José Flores eta Sergio Gómez kideen abstentzioarekin onetsia geratzen da.

5. Eztabaida, eta badagokio, 2014-2015 ikasturteko Nafarroako Eskola Kontseiluaren Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostenaren onespena.

Memoria bozkatzen da, aurka agertzen den kiderik ez dago, beraz, onesten da.

6. “Nafarroako haurren aldeko aliantza” dokumentuaren aurkezpena.

Lehendakariak dokumentuaren garrantzia azaltzen du, bai UNICEFek, baita dokumentuan parte hartzen duen taldeak ere, paktuari ahalik eta erakunde gehienak gehitzea bilatzen baitute. Hurrengo Osoko bilkuran gaiaren edukia aztertu eta landu posible izateko da aurkezpenaren helburua.

7. Autonomien Eskola Kontseiluen XXIV. Topaketen informazioa.

Azaroaren 27an burututako bileraren berri ematen du Lehendakariak. Funtsean, bi gai landu ziren: a) Hezkuntza Hitzarmena, Parte hartze Autonomikoen Bilkuraren jardunaldien gai zentrala izango dena; eta b) Udal Eskola Kontseiluei buruzko feria baten burutzea Valentzian.

8. Galde-eskeak.

PAIren inguruko bilera monográfico bat dagoela hurrengo astelehenean 21, gogorarazten die Lehendakariak bertaratukoei.

Santiago Álvarezek Estebe Petrizáni galdetzen dio ea familiei abenduaren azkeneko astean informatuko zaien, hitzartutako moduan, edo ea Eskola Kontseiluko bilera horretarako erabiliko den, eta honek erantzuten du, esan dezakeen bakarra astelehenean Eskola Kontseiluari informatuko zaiola dela.



Eskola Kontseiluari bakarrik informatzen bazaio, zenbait kolektibo minduta sentituko direla adierazten du Sergio Gómezek.

Ea saio informatiboa soilik izango den edo ea gauzak planteatu ahalko diren galdetzen du Ernesto Delásek, eta honi Lehendakariak esaten du Kontseilaria ere entzutera etorriko dela. Estebe Petrizán bat dator honekin.

Ezingo dela bertaratu esaten du Camino Buenok, beste pertsona batzuk bezala, aldez aurretik data zailak zirela abisatu zuen, beraz, aukeratutako datarekin desadostasuna erakusten du.

Eta lantzeko gai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak Osoko bilkuran bertaratutako kideen parte-hartzea eskertzen du eta saioari amaiera ematen dio 21:00 orduetan.